

Mondragon Unibertsitateak eta MCCk hitzarmen bat sinatzen dute Enpresa Proiektuen Masterrean parte hartzen dutenei beka emateko

2007/11/12

Mondragon Unibertsitateak lankidetzak hitzarmen bat sinatu du MCCrekin "Enpresa Proiektuen Zuzendaritza Masterra" izeneko programan parte hartzen dutenentzako beka sistema bat finantzatzeko.

Duela zortzi urtetik hona Mondragon Corporación Cooperativa, Mondragon Unibertsitatea eta Saiolan Enpresa eta Berrikuntzarako Zentroa elkarrekin ari dira lanean "Enpresa Proiektuen Zuzendaritza Masterra" izeneko prestakuntza ikastaroa eskaintzeko.

Gaur arte, 125 profesional baino gehiago dira programa hau egin dutenak, berrikuntza, sormena, ekintzailtza eta ekipoen lidergoa funtsezko oinarritzat hartuta.

Programa honekin MCCko enpresen sektoreetan dauden negozio aukerak bilatzen eta ikertzen lagundu nahi da, bai eta kooperatibak nazioartekotzeko prozesuetan laguntzea eta negozio aukera berrietan oinarritutako enpresa proiektuak bultzatzea ere.

Ikusita zein garrantzitsua den lehen esandako profila duen jendea prestatzea, MCC Fundazioak diru laguntza bat onartu du "Enpresa Proiektuen Zuzendaritza Masterra" izeneko programan parte hartzen dutenentzako beka sistema bat finantzatzeko. Onartutako diru laguntza, gehienez, 150.000 eurotako izango da.

Bestalde, urtarrean programa honen beste edizio bat hasiko da, ete, bertan, ikasleak zortzi hilabetez enpresa batean proiektu ekintzailea garatzen ematea aurreikusten da masterraren hirugarren fasearako.

